

Prensa Oharra

Parte Zaharreko ostalaritzako 209 langile euskara ikasten hasiko dira “Erraza da” egitasmoari esker

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak, ostalaritzan euskararen erabilera sustatu nahian, “Erraza da” proiektu pilotua jarri du martxan Parte Zaharreko establezimenduetan. Egitasmo hau jatetxe zein tabernetan lan egiten duten eta euskara ez dakiten zerbitzari eta langileei zuzendua dago. Taberna eta jatetxe guztiak bisitatu eta gero, 71 establezimendutako 209 langile animatu dira egitasmo berritzaile honetan parte hartzera.

Apirilaren 23an hasi dira euskarazko lehen hitzak ikasten. Helburua da egunean bi hitz/esamolde ikastea eta, horrela, hiru hilabeteren buruan 200 hitz/esamolde ikasiko dituzte. Oinarri horrekin, egitasmoan parte hartuko duten langileak gai izango dira bezeroak eskatzen duena ulertzeko eta elkarrizketa simple bat izateko.

Langileen %80k eta establezimenduen %85ek parte hartuko dute

Parte Zaharreko ostalaritzako establezimendu guztiak, 153 establezimendu, bisitatu dira ekimenaren berri emateko. Establezimendu horietatik, 69tan jendaurrean lan egiten duten langileak gai dira bezeroak eskatzen duena ulertzeko. Beraz, Erraza da egitasmoan parte hartzeko baldintzak 84 establezimenduk betetzen dituzte, eta horietatik 71 establezimenduk, %85ek, ekimenean parte hartzea erabaki dute.

ERRAZA DA EGITASMOAREN DATUAK	
Bisitutako establezimendu kopurua (Tabernak eta jatetxeak)	153
Langile guztiak euskaldunak edo euskara ulertzeko gai dituzten establezimenduak	69
Egitasmoan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten establezimenduak	84
Egitasmoan parte hartuko duten establezimenduak	71
Egitasmoan parte hartzeko baldintzak bete eta parte hartu (ehunekoa)	% 85
Jendaurrean lan egiten duten langile kopurua	599
Bezeroak eskatzen duena ulertzeko gai ez diren langileak	263
Egitasmoan parte hartuko duten langileak	209
Egitasmoan parte hartuko duten langileak (ehunekoa)	% 80

Era berean, bisitatu diren establezimenduetan (153 establezimendu) 599 pertsonak lan egiten dute jendaurrean eta, horietatik, 263 ez dira gai bezeroak euskaraz eskatzen duena ulertzeko. “Erraza da” egitasmoa aurkezteko bisitak egin ondoren, 263 langile horietatik 209k erabaki dute euskara ikasten hastea, %80k hain zuzen ere.

Prentsa Oharra

Establezimendutako langileen %45ek euskara daki edo ulertzen du

Miren Azkarate Euskarako zinegotziaren hitzetan, proiektu pilotuaren hasiera ezin hobea izan da. *“Sektorean lanean ari diren jendaurreko langileak euskarara erakartzeko helburua genuen eta hori ondo baino hobeto lortu dugula dirudi. Egitasmo erraza eta erakargarria da beraientzat, neke handirik gabe burutzeko modukoa, eta espero dugu eraginkorra izatea”*. Bestalde, Miren Azkaratek txanponaren beste aldea erakustea eta beste datu batzuk agerian jartzea garrantzitsua dela adierazi du. *“Parte Zaharreko 69 establezimendutan, establezimenduen %45, egitasmoa ez da beharrezkoa bertako jendaurreko langileak euskaldunak edota euskara ulertzeko gaitasuna dutenak direlako. Horrez gain, kontuan hartu behar da langileen %55 gai dela bezeroak euskaraz eskatzen diona ulertzeko eta elkarrizketa sinple bat izateko”*.

Euskara ikasten hasteko aukera lantokian bertan

“Erraza da” ekimenari garrantzia eman dio Udaleko Euskara Zerbitzuak, bezeroen eta langileen arteko lehen hitzak zerikusi handia baitu hizkuntza hautuan. Horregatik da hain garrantzitsua bezeroa agurtzea *Kaixo!* esanez edo *Zer hartu nahi duzu?* galdetuz, hasierako agur horrek euskararen erabilera ikaragarri errazten du eta.

Ostalaritzan lan egiten duten askok ez dakite euskara eta, hainbat arrazoi direla medio, zaila egiten zaie euskaltegira joatea. Hori dela eta, Euskara Zerbitzuak “Erraza da” egitasmoarekin euskara ikasten hasteko aukera ostalaritza establezimenduetara eramán du.

“Erraza da” ekimenean parte hartzen duten ostalariek 200 hitz/esamolde jasotzen dituen hiztegitxo bat jaso dute, lanerako baliagarri egingo zaizkien hitzak jasotzen dituenena. Era berean, hautazkoa den txapa janzteko aukera izango dute, euskara ikasten ari diren mezua daukana. Bestalde, ekimenean parte hartzen duten establezimenduek urteko egutegi bat jaso dezakete eta berezia izango da, egunean parte-hartzaileak ikasten ari diren hitz/esamolde bat jasotzen du eta.

Halaber, hamabostean behin, parte-hartzaileek galdetegi bat jasoko dute posta elektronikoz eta aurreko 15 egunetan ikasitako hitz eta esamoldeen inguruko galdera batzuk erantzun beharko dituzte. Oso erraz eta azkar erantzutekoak izango dira eta, ekimena bukatutakoan, “Erraza da” egitasmoan parte hartu duten idazki bat lortuko dute.

Miren Azkaratek gogoratu du herritarrok lagundu dezakegula proiektuan. *“Bezeroak garen neurrian, Parte Zaharreko tabernetako zerbitzariari euskaraz eskatzea garrantzitsua da, ikasten ari direna praktikan jartzeko modu bakarra baita”*.

Informazio gehiago: www.errazada.eus

Prentsa Oharra

PARTE HARTUKO DUTEN ESTABLEZIMENDUAK	
A.148	LA CUEVA DEL POLLO OILASKOTEGIA
ALDERDI ZAHAR JATETXEA	LA CUEVA TABERNA JATETXEA
AMBIGÚ JATETXEA	LA FABRICA JATETXEA
ARGITAN KAFETEGIA	LA JARANA TABERNA
ASTELENA JATETXEA	LA MURALLA TABERNA
ATARI	LANBROA TERRAZA BAR
AZKENA TABERNA	LETE TABERNA
BAR KOPAS TABERNA	MAIATZA
BAR NARRIKA TABERNA	MATINELA JATETXEA
BE CLUB	MESÓN PORTALETAS
BOCADO JATETXEA	NESTOR 1980 TABERNA
BODEGÓN ALEJANDRO S.L. JATETXEA	OIARTZUN ARTISAU GOZOTEGIA
BOLLYWOOD JATETXEA	OSTERTZ TABERNA
BORDABERRI TABERNA	PACO BUENO TABERNA
BREAK KAFETEGIA	PIÑUDI TABERNA
CASA VERGARA JATETXEA	QUÉBEC KREP HERRIA JANARI-DENDA
CASA TIBURCIO JATETXEA	RAMPA JATETXEA
CASA UROLA JATETXEA	RAVIOLINE LA CUICINE DE LA NONNA
CHURRERIA PUERTO	RELOJ BERRI KAFETEGIA
DARAKABI TABERNA	RESTAURANTE MUNTO JATETXEA
EL CASERIO JATETXEA	SAN TELMO TABERNA
ETXEBERRIA TABERNA	SANTANA KAFETEGIA
GANDARIAS JATETXEA	SENRA ZAHARREAN
GARAGAR TABERNA	SIRIMIRI GASTROLEKUA
GERUA	SUHAZI JATETXEA TABERNA
HORI DA	THE YELLOW DELI
IGELDO JATETXEA	TAS TAS TABERNA
IJENTEA KAFEA	TSI TAO
INTZA TABERNA	TXALUPA TABERNA
IRATXO TABERNA	TXULETA
IRRINTZ TABERNA	UBARRECHENA
JUANITO KOJUA JATETXEA	UREPEL JATETXEA
KENDI SUSHI	URRAKI TABERNA
KOKOTSA JATETXEA	WHITE TARA
KOXXOL	XIBARIS
LA CEPA BAR RESTAURANTE	